

erain
literatura

**Laura
Mintegi**
**ILUSIOAREN
ORDAINA**



Erreginak, urrezko makila altxatuz, preso hartuta zegoen sagu gazte ausartia bere aurrera ekar ziezaioten agindu zuen, eta printzesaren bihotzak, lasterketa zoroan, bularretik atera nahi zuela zirudien. Trono gelan isiltasunaren hotsa nabarmen zen. Goardiakoek printze gaztea erreginaren oinetara jaurtiki zutenean, sagu guztien bularretatik ooo! luze bat atera zen. Hain liraina eta lerdena zen printzea!

Baina gerla krudelaren presoa zen, eta gainera, etsaien erregearen semea. ure printzesak ez zuen gerlaz edo armadez ulertzen. Berak maite zuen sagua, ez zekien zergatik zegoen lurrian botata, eta begiak malkoz bete zitzaizkion.